

## 2.10 Iraunkortasuna eta klima aldaketa (G10)

Iraunkortasuna eta klima aldaketarekin lotutako gai edo irizpideak ez dira era berezian tratatzen Aurrerakinaren dokumentu teknikoan. Aipamenen bat egiten den kasu edo hautabideetan, gainera, ikuspuntua aldakorra da (edo era orokorrean hitz egiten da iraunkortasunari buruz, edo uneko ikuspegiak aipatzen dira klima aldaketari egokitu edo arintzeari dagokionez).

L1 hautabidea ikuspegi orokor horren adibide da, non iraunkortasunak gizarte, kultura, ingurumen eta ekonomi ikuspegiak hartzen dituen (denak bermatu behar dira jasangarri izateko). Helburu bezala dauka aztarna ekologikoa gutxitzea eta ondokoak hartzen ditu lehentasunezko bezala: dauden baliabideak aprobetxatzea, ondare historiko-artistikoa eta naturala berreskuratu eta gordetzea, eta landa sektorea babestea. Lurralde naturalari dagokionez, mantentzea eta gehitzea nahi du eta kudeaketa ekosistemiko bat aplikatu, ongizatea eman eta hobetzeko, eta baita ezegote klimatikoaren aurrean babesa eman, (resilience cities). Hori dela eta, bere lurralde estrategikoak lurzoruaren okupazio gutxiago bilatu nahi du (izan ere, jada eraikigarri bezala kalifikatutako zenbait lur-zatiren kasuan).

L2 hautabidea, bestalde, ingurugiroan oinarrituak iraunkortasun baten alde dago. L3 hautabideak, ordea, aztarna ekologikoa gutxitu nahi du, baina muturrera joan barik.

Uholde arriskuari dagokionez klima aldaketari egokitzea adibide zehatz eta sektorial bezala agertzen da. Hautabide teknikoan eta L3 hautabidean ukitzen da, GL SO bezala kalifikatzen baitira, behintzat, Gobela ibaiaren buruko uholde arriskuko guneak. Era horretan eskuratu ahal izango dira doan jabari publikorako, ahal bada behintzat, Gobela ibaiko gaur egungo ibilguaren handitzeko azalerarekin batera gune libreen erabilera jasangarri baterako, naturaren gozamena eta bere balio naturalen gordetzea bateragarri eginez (uholde tarteen eguneratzea etengabe egingo da Plan Orokorraren tramitazioaren fase ezberdinen zehar).

Beraz, Aurrerakinak egin dezakeen analisiak ondoren integratu dezake balorazio bat edukien aldetik, aldez aurreko hausnarketa bat egin baino eta, horren ondorioz, eredu edo hiri-estrategia era justifikatu batean norberenganatu. Hala ere, amankomuneko zerbait da hiri trinkoaren aldeko apostua egitea, dispertsioa saihestuz (mugikortasuna eta bere funtzionamendurako baliabideak murriztuz), dentsitate ertain edo handien aldeko apostua, kostaldeari emandako balioa, etab.

Lehen hausnarketa honek garapen gehiago beharko du HAPOean (urbanizazio eta eraikuntza ordenantzetan energia-eraginkortasun irizpideak jarritz, neurri zehatzak hartuz, etab.).

### Indarrean dagoen HAPO (2001)

Plan Orokorrak iraunkortasunari lotutako helburu orokorrak lortu nahi ditu:

- *Ekologi, paisaia, ekoizpen eta zientzia eta kulturako balioen gordetze eta mantentzea bermatzea.*
- *Kaltetuta dauden elementu eta prozedurak hobetu, errekuaratu eta birgaitu.*
- *Kaltetutako tokiko espezieen guneak birgaitu edo kutsatutako eremuak, bere erabilera aldaketa bultzatuz.*
- *Kostaldeko erabilera eta jarduerak arautu, era horretan esparruak aisialdi erabilerarako errekuaratu, ingurua eta proposatutako konponbideekin bat eginez.*
- *Atal honetan jasotako helburu guztiak biltzen dituen plangintza tresna asmatu, eta baita hori arautzen duen araudi bat.*